

Berrikuntza Hizkuntzan eta Literaturan

1. Oinarrizko datuak

- **Modulua:** Espezifikoa III
- **Izaera:** Hautazkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Iratxe Retolaza Gutierrez

2. Irakasgaiaren azalpena eta testuingurua

Hizkuntza eta Literaturaren esparruan hezkuntza-testuinguru jakin batzuetan garaturiko berrikuntza-ildo nagusienak ezagutuko dira ikasgaiak, eta praktika onen ereduak aurkeztuko dira, curriculumari loturiko zehar-lerro zenbait ardatz hartuta (kultura digitala, genero-ikuspegia, Euskal Curriculum...). Halaber, hezkuntza-praktikak berritzeko, birpentsatzeko eta eraldatzeko prozedurak zein jarrerak landuko dira.

Ikasgai hau masterreko hirugarren moduluaren parte da, eta bi ikasgaiaren batura da: Hezkuntza-ikerketarako hastapenak eta Berrikuntza hizkuntzan eta literaturan. Biak bakarrean batzea erabaki dugu, gaiek lotura estua dutelako eta, irakasle berberarekin izanik, gauzak erraztuko dituela pentsatu dugulako. Hortaz, hezkuntzaren alorreko ikerketaz eta berrikuntzaz jardungo dugu, oro har.

3. Konpetentziak

- Hizkuntzaren eta literaturaren esparruan irakaskuntza-berrikuntzarako egitasmoak ezagutzea eta ezartzea.
- Berrikuntza-egitasmoak irizpide pedagogiko kontrastatuen arabera ebaluatzea.
- Hizkuntzaren eta literaturaren irakaskuntzan identifikatutako arazoen iturrietan arakatzea eta erantzunak bilatzea, baita ikaskuntza-prozesuetan identifikaturiko arazoen iturrietan ere, egoera gainditzeko bideak proposatzeko.
- Berrikuntza-proiektuak diseinatzea, hizkuntza-erabileraren eta fenomeno linguistiko-diskurtsiboen inguruko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak hobetzeko.
- Hizkuntzen eta literaturaren ikaskuntzaren inguruko hezkuntza-ikerketarako oinarrizko proiektuak garatzea eta ebaluatzea.

4. Ikas-emaizak

- Europako erakundeek sustatutako berrikuntza-ildo nagusieen printzipioak ezagutzea, eta tokiko hezkuntza-testuinguruetara egokitzea, kasuan kasuko curriculum-ardatzetan jasotako jarraibideak kontuan hartuta.
- Metodologia pedagogikoetan, esku-hartze proposamenetan, testuliburuetan edo irakaskuntzako materialetan ezaugarri berritzaileak identifikatzea, eta irakaskuntza-ikaskuntza egoera jakin batean lortu nahi diren helburuak lortzeko horien egokitasuna kritikoki baloratzea.
- Hezkuntzaren testuinguru jakin baterako berrikuntza-lan propio bat edo esku-hartze propio bat diseinatzeko.

5. Edukiak

- (3) Berrikuntza (I): alfabetatze multimodala
- (4) Berrikuntza (II): kultura digitala
- (5) Berrikuntza (III): ikas-egoerak eta curriculumaren zehar-lerroak
- (5.1.) Euskal Curriculuma
- (5.2.) Tokiko Curriculuma
- (5.3.) Hezkidetza eta genero-ikuspegia
- (6) Azken produktua

6. Metodologia

Ikasgaiak **ikaskuntza autonomo eta esanguratsua** bultzatuko du **metodologia aktibo** baten bidez, eta UEUren online ikas-irakaskuntzarako eredu pedagogikoan oinarrituko da. Alderdi teorikoa eta praktikoa uztartuko ditu, arreta ikaskuntza-prozesuan eta konpetentzietan jartzeko.

7. Tutoretza

Tutoretza-saioen helburua ikasgaiaren inguruko zalantzak argitzea izango da. Bideo-bilera sinkronoak izango dira, eta, ikasgaiak irauten duen bitartean, bi egingo dira gutxienez. Saioen egunak eta ordutegia irakasleak proposatuko ditu Ikasgela Birtualean.

8. Ebaluazioa

Ikasgaien ebaluazioa jarraitua eta hezitzailea izango da. Kalifikazioetarako, gai bakoitzeko zereginak, azken produktua eta parte-hartzea baloratuko dira. Ikasketa-prozesuan zehar eginiko hausnarketa pertsonalei eta talde-dinamikan eginiko ekarpenei ere garrantzia emango zaie.

9. Bibliografia

- Bisquerra, Rafael (2004). Metodología de la investigación educativa. La Muralla.
- Cristóbal Álvarez Balandra, Arturo eta Álvarez Tenorio, Virginia (2014). Métodos en la investigación educativa. Universidad Pedagógica Nacional.
- Juaristi Larrinaga, Patxi (2003). Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak. UPV/EHU.
- Martínez González, Raquel-Amaya (2007). La investigación en la práctica educativa: Guía metodológica de investigación para el diagnóstico y evaluación en los centros. Centro de Investigación y Documentación Educativa.
- Mesonero de Miguel, Mikel (2005). Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak. UEU.
- Navarro Asencio, Enrique (koor.) (2017). Fundamentos de la investigación y la innovación educativa. UNIR.
- Pérez, Ángel I. (koor.). Aprender a enseñar en la práctica. Procesos de innovación y prácticas de formación en la Educación Secundaria. Graó.
- Ruiz Bikandi, Uri (koor.) (2011). Lengua castellana y literatura: investigación, innovación y buenas prácticas. Graó.
- Villar, Luis Miguel (koor.) (2004). Capacidades docentes para una gestión de calidad en Educación Secundaria. Pearson/Mc Graw Hill.
- Villar, Luis Miguel (koor.) (2009). Creación de la excelencia en Educación Secundaria. Pearson/Prentice Hall.
- Wood, Phil eta Joan Smith. (2018). Investigar en educación: Conceptos básicos y metodología para desarrollar proyectos de investigación. Narcea.

Sakontzeko bibliografia:

bell, hooks (2023). Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika. Katakarak.

Esquivel Corella, Freddy (2013). Lineamientos para diseñar un estado de la cuestión en investigación educativa. Revista Educación, 37(1), 65–87.

Santiago Etxeberria, Karlos; Jimenez-Arrieta, Olaia eta Lukas Mujika, Jose Francisco (2018). Metodo mistoak Hezkuntza-ikerkuntzan. Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria, 30(1), 87–111.

Komunikazioa eta testugintza lantzeko:

Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Masterra (online)

<https://www.goi-institutua.eus>



: goimailako
:
: online
:
: institutua

Garzia Garmendia, Joserra (2008). Jendaurrean hizlari: (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua. Alberdania.